

**Denboraren makina**  
Gerra Hotzaren  
akuriak

▣ *Ezpalak*  
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*  
▣ *Makina bat kontu*

**Ihesi**  
Baiona: bidea  
begiekin egiten  
denean

ARGIA

erdiko kaira

kultura eta aisia

# Jean Planquek ezkutuan zuena

Jean Planque suitzarraren (Ferreyres, 1910-La Sarraz, 1998) bizitza markatu zuen 1920ko hamarkadan, artean gaztetxo bat besterik ez zela, erakusleihu batean ikusi zuen Paul Cézanne-en margo batek. Hura izan zen jatorri umileko gazteak Europako bildumagile ospetsuenetako bat bihurtzeko bidean eman zuen lehen pausoa: artearekiko lilura eta miresmena sentitzea. Bilboko Arte Eder Museoan ikusgai dagoen erakusketak, *Picasso eta Dubuffeten artean*. *Jean Planque bilduma* izenekoak, joan den mendeko artean barnako ibilbidea proposatzen du: XX. mendeko artea Jean Planqueren begien bitartez ikusia.

NERE LUJANBIO

Jean Dubuffet-en *Societat d'utilitatge* lana ikusgai dago, besteak beste, *Picasso eta Dubuffeten artean*. *Jean Planque bilduma* erakusketan.





# Arteari eskainitako bizitzaren erretratua

**GUK USTE BAINO ARGIAGO** hitz egiten dute gure buruez sarritan inguratzen gaituzten objektuek, gure sentipen eta interesez. Zer dio gutaz egongelako apaletan dugun liburu bildumak, edo musika aparailu alboan dauden CD mendixkek? Inguruan biltzen dugun ondareak marrazten du gure erretraturik finena. Antzeko zerbait gertatzen da arte bildumekin ere. Batik bat Jean Planque bezala, debozioz eta esfortzu handiz osatutako bilduma pribatu pertsonalekin. *Planque bilduma* bildumagile eta artista suitzarraren erretratua da, baina baita hogeigarren mendeko artearen bilakaeraren erretratu subjektiboa ere.

## Jardunez ikasi

1954 eta 1972 urteen artean Basileako Beyeler Galeria ospetsuko aholkulari gisa jardun zen lanean Planque. Arteari dagokionez ez zuen ikasketarik egin eta senari kasu eginaz eta zoria jarraituz hartzen omen zituen erabakiak. Futbolari edo aktore gazteen atzetik ibiltzen diren talentu bilatzaileen gisan, galeriak, museoak eta artisten lantegi handi eta txikiak bisitatzen zituen, batekin eta bestearekin hitz egin, eta azkenik, gustuko zuen hura erosten zuen. Beyeler Galeriako nagusiek erabateko konfiantza zuten nonbait Planque hartzen zituen erabakietan eta ez zioten inolako baldintzarik jar-

tzen lanak erosterako orduan. Bere begiradak ez zuen hutsik egiten, antza.

Beleyerrentzat egiten zituen erosketez gain, bere bilduma pribaturako lanak erosten hasi zen apurka-apurka. Baliabide ekonomiko mugatuak zituen eta hori zuen eragozpen handiena gustuko zituen lanak eskuratzeko orduan, galeria eta museo handiek eskaini zezaketek dirutzaren aurrean ezer gutxi egin baitzezakeen. Baina konstantzia, zuhurtzia eta artearekiko miresmen itsuari esker, nola edo ahala, artista handien lan bikainak erosteko aukera izan zuen.

Sortzaile asko ezagutu zituen urte horietan, baina bereziki batzuek izan zuten eragina artea ulertu eta gozatzeko zuen moduan. Artistak eta beraien artearekiko eta bizitzarekiko ikuspegia ezagutu ahala, Planquerena ere aldatuz joan zen. Paul Cézanne erabateko maisutzat izan zuen gaztetatik, eta bere eraginari esker ezagutu zituen Picasso, Laurens edo Léger bezalako artisten lanak; kubismoaren inguruan zebiltzanenak, hain zuzen. Gerora, Jean Dubuffetekin harreman estua izan zuen eta beharbada hura izan zuen artea ikusteko modua irauliarazi ziona. Ordura arte XIX. mende amaierako maisuen eta lehenengo abangoardietako artisten miresle izan zenak, Dubuffeti esker *Art Brut* bezala ezagutzen zena-ekin egin zuen topo. “Berezkoa”, “ikasi gabea” aldarrikatzen zuen estiloa zen hura, haurren eta



“zoroen” sorkuntza lanak goraiatzzen zituen. Dubuffetek artelanei beste begi batzuekin begiratzzen irakatsi zion Planqueri. Kleeek, Picassok... bakoitzak bere neurrian, suitzarraren gustua eta, bide batez, bere bilduma moldatu zuten.

### Erakusketa, omenaldi gisa

Erakusketaren izenburuak berak, *Picasso eta Dubuffeten artean. Jean Planque bilduma*, Planqueren ibilbidean mugari izan ziren bi artista aipatzen ditu. Bilduman eta erakusketan, erraz sumatzen da artista horiekiko izan zuen miresmena. Koadroen kalitatean eta kopuruan ere horiek biak dira bereziki nabarmen zuten direnak.

Bilboko Arte Ederren Museoan antolatu duten erakusketaren helburua Jean Plauek arteari eskainitako bizitza omentzea izan da. Erakusketako komisario lanetan Florian Rodari aritu da, *Foundation Jean et Suzanne Planque*ko kontserbadorea, hain zuzen ere. Guztira 50 artisten 150 lan inguru daude ikusgai, nagusiki koadroak, baina baita zenbait eskultura ere. Bildumagilearen ibilbidearen berri emateko asmoz, atalka antolatu dituzte artelanak. Horrela, erakusketan aurrera joan ahala Planquek artea begiratzeko zuen modua nola joan zen eraldatzen ikusiko dugu.

Sarrerako aretoan XIX. mendeko maisuen zenbait lan daude: Cézanne, Van Gogh, Monet, Degas... Ordurako artista ezagunak baziren ere, Planqueren aholkulari lanbideak aukera eman zion artista handi horien lanak eskuratzeko, nahiz eta koadrorik azpimarragarrienak ez izan. Kubismoarekiko joera izan zuen ondoren, eta horren adierazgarri ditugu, besteak beste, Picasso edo Légerren lanak. Paul Kleeren bitartez, kubismotik abiatu eta munduaren eta artearen



Ezkerrean, Paul Klee-ren *Alte Stadt und Brücke*. Eskuinean, Pablo Picasso-ren *Busto de mujer dormida*.

ikuspegi pertsonalagoetara salto eginez, abstrakzioa mirestera iritsi zen. Hurrengo pausoa Dubuffetekiko harremanak ekarriko zuen, edertasun formaletik, eta aurrez ikusitako guztitik aldentzen zen arte “itsusi” eta “zarpaila” ezagutu eta maitatzea. Tartean, beste estilo batzuetako lanak ere eskuratu zituen Planquek. Esate baterako, erakusketan badira pintura materikoa landu zuten zenbait artista aipagarriren lanak, Tapiés edo Millares, besteak beste.

Estilo ezberdin askok egiten dute bat Bilboko erakusketan eta artelanen kalitatea ere gorabeheratsua da, Planquek, nahi zuena baino gehiago, bere baliabide ekonomikoekin ahal zuena erosten baitzuen. Baina lan guztien artean badaude ezaugarri komunak ere: erakusketan ez dago helburu bakartzat edertasun formala bilatzen duen lanik. Planqueri ez zitzaizkion interesatzen azaleko apainkeriak edo ilusio bisualak. Forma ederrak baino nahiago zituen gainazal indartsuak, nortasuna zutenak, eta ausartak.

### Bildumagile eta margolari

Erakusketaren amaiera aldera, bereizitako bi gune daude. Batetik, paperean egindako lan ederrak biltzen dituen gelatxo bat. Bertan daude, besteak beste, Degas, Picasso edo Renoir-ek arkatza, pastela edo akuarela erabili-ta sortutako lan delikatuak. Bestetik, Planqueren beraren sorkuntzari eskainitako atala dugu. Erakusketan ikusitakoaren baieztapen gisa, urtetan Planquek estilo ezberdinetan egindako hainbat saiakera bildu dituzte. Garai bakoitzean interesatzen zitzaion hura erosi soilik ez, estilo hori jarraituz margotzen ere saiatu zen. Ez dira punta puntako lanak, maisua imitatu nahi duen ikaslearen saioretatik gertuago daude, baina erakusketak bistaratzen duen Planqueren erretratuaren sinadura gisa har genitzake. Planquek berak, bere eskuekin egindako sinadura, ibilbide luzearen laburpena. ■